



# TXOLARREK 10 URTE BETETZEN DITU AURTEN

Euskara hutsez emititzen duen irrati libreak Bertso Jaialdia antolatu du Tolosako Leidorren hilaren 23rako >4

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteartea  
2010-01-12

VIII.URTEA 1900.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Fernandezek belako 49er mailako Munduko Txapelketa irabazi du

**IBARRA** Iker Martinezekin batera lortu du garaipena ibartarrak; hirugarrengez irabazi dute txapelketa hau

«**GARAIPEN BOROBILA**» Herenegun izan zen azken jardunaldia; «garaipen handia» izan da kirolarientzat <6



Atzo hasi zituzten Euskal Herria plazako lanak; eremua oinezkoentzat berreskuratu nahi du Udalak. E. EZBIZA

## HASI DIRA EUSKAL HERRIA PLAZAKO ZOLADURA BERRITZEN

**TOLOSA** Topic-en obrak baliatuz argitasun baldintzak hobetu zituzten, orain zoladuraren eta hiri altzari berrien txanda iritsi da <3



Tolosako Beotibarren izan zen Binakako Txapelketako partida. A. IMAZ

## 22-15 irabazi dute Bengoetxea IV.a eta Belokik Xala eta Zubietaren aurka


**LEITZA** Binakako Txapelketako lehen partida jokatu dute Tolosan leitzarrak eta burlatarrak <7

**Gaur ekingo diote berriz epaiketari lekukoan testigantzekin**

'**EGUNKARIA AUZIA**'  
10:00etan hasiko da saioa Auzitegi Nazionalean <2

**Oinarrizko sareak eta lurzorua berritzen jarraitu nahi du Udalak**

**AMEZKETA** E-Planari esker Plantxenetik Mediku etxera artekoa txukundu nahi dute <5



# Gaur ekingo diote 'Egunkaria'-ren aurkako epaiketari, lekukoekin

## 'Egunkaria auzia' »

Defentsakoak eta akusaziokoak izango dira galderak erantzuten, 10:00etatik aurrera.

### ERREDAKZIOA

Euskaldunon Egunkaria kazetaren itxierari buruzko epaiketaren hurrengo saioa gaur izango da, Espainiako Auzitegi Nazionalan, Madril 10:00etatik aurrera. Lekukoek hitz egingo dute, defentsakoak eta akusaziokoak.

Ustez ETaren zuzendaritza zeudenak batetik, eta bestetik guardia zibilak deituko dituzte. Horiek herri akusazioaren, hau da, Dignidad y Justicia eta AVTren, galderak erantzuniko dituzte, eta baita defentsaren ere. Fiskalaren aldetik, ordea, ez da galderarik espero aurreko saioetan auzipetuei eta guardia zibilei ere ez baitzien inolako itaunik egin.

Epaiketa abenduaren 15ean hasi zuten, eta Martxelot Otamendi, Joan Mari Torrealda, Iñaki Uribe, Txema Auzmendi eta Xabier Oleaga daude auzipetuta, ETako kide izateak egotzita. Fiskalak auzia ixteko eskatu zuen bere garaian, eta epaiketako lehen bi egunetan ez zuen galderarik egin. Dignidad y Justicia eta AVT herri akusazioek baino ez dituzte egin zigor eskaerak.

Auzipetuek ETaren kide izan zuten abenduaren 15eko saioan. Hurrengo egunean, guardia zibilek ez zuten Egunkaria-ren eta ETaren ustezko harremanez frogarik aurkeztu.

Gabonetan eginiko geldialdiaren ondoren, beraz, gaur ekingo diote epaiketari, eta jarraipena hilaren 25ean, 26an eta 27an izango du, berriro ere otsailean segitzeko.



Arte plastikoetan dihardutenek sostengua adierazi zieten larunbatean Egunkaria-ko auzipetuei. I. OTEGI / ARGAZKI PRESS

### Lopezek Justizia «zalantzan»

Patxi Lopez Eusko Jaurlaritzako lehendakariak atzo adierazi zuenez, Egunkaria auzia-n «justizia egitea» espero du, nahiz eta epaiketaren egiteko zazpi urte igarotzeko Justizia «zalantzan» jartzen duen —2003ko otsailean itxi zuten euskarazko kazeta—. Bere ustez, horrelako kasuetan, epaiketa epe laburragoan ireki eta ixteko eskatu beharko litzateke; «zazpi urte pasatzea gehiegizkoa da, Justiziaren eta sistema judicialaren ez oso aldeko iritziak sortzeko ere balio duelako. Horregatik hori guztia fitzasun handiagoz landu beharko litzateke».

### Babesa gure mugetatik at ere

Egunkariaren auzipetuek adierazi dute esperotako elkartzuna ari direla jasotzen herritarrengandik, eta horren adibide pasa den abenduaren 19an Bilbon deitu zuten manifestazioa milaka eta milaka laguneman parte-hartzearekin. Martxelot Otamendik esan bezala, «oso

poziko» daude bai euskaldunen eskutik, bai eta gure mugetatik at ere jasotzen ari diren babesarekin; «oso garrantzitsua da guretzat herritar ugari gurekin dagoela ikustea».

Egunkaria itxi zutenean Euskal Herrian ezezik bertatik kanpora ere hainbat plataforma sortu zituzten Egunkaria-ri babes adierazi eta erabaki hura salatzen. Orain plataforma horiek ekitaldi eta hitzaldi sorta ari dira antolatzen, «gizartearen babes eta elkartzuna hura berriro ere piztu asmoz. Halaber, Egunkaria auzia zertan den gogoratu, eta herritarrek egunean jarri nahi ditugu», azaltzen du Otamendik. Tolosarra Lizarran (Nafarroa) izango da birra, Musika Eskolan, 20:00etan.

Euskal Herriko kanpoko hitzaldietan aurrenekoak, berriz, Madril 18an Tarragonan izango da Martxelot Otamendi, hilaren 19an Valentzian, hilaren 20an Bartzelonan, 21ean Mallorcan eta 22an Gironan. Hitzaldietara bertaratzen direnak auziaren inguruko azken berriak izango dituzte.

Otamendi, *Prensa: adierazpen askatasuna eta errepresioa* hitzaldian. Carmen Lamarca abokatu eta unibertsitate irakaslea eta Ricardo Vazquez Prada idazle eta kazetaria edukiko ditu mintzalagun. Ekonomika Fakultateko aretoan hitz egingo dute, 19:00etatik aurrera. Egunkaria-ren aldeko Aragoiko Plataformak antolatu du ekimena.

Datorren asterako ere hainbat ekimen antolatu dituzte. Hilaren 18an Tarragonan izango da Martxelot Otamendi, hilaren 19an Valentzian, hilaren 20an Bartzelonan, 21ean Mallorcan eta 22an Gironan. Hitzaldietara bertaratzen direnak auziaren inguruko azken berriak izango dituzte.

### Auziaren jarraipena

Abenduaren 15ean eta 16an bezala, [www.berria.info](http://www.berria.info)-n epaiketako gaurko saioaren zuzeneko testu kontakizuna egingo dute, 10:00etatik aurrera, Espainiako Auzitegi Nazionaletik bertatik.

## Laburrak

### Tolosa Kantarik deituta, entseguia izango da bihar

**TOLOSA** • Tolosa Kantarik antolatuta, kantu entseguia izango da bihar, Tolosako Musika Eskolan, 20:00etatik aurrera. Besteak beste, Inauterietako eta Santa Ageda bezperako kantu batzuk entseutuko dituztela azaldu dute arduradunek. Hurrengo entseguia bi aste barru egingo dute, hilaren 27an, hain zuzen ere. Beti esan ohi duten bezala, parte hartu nahi duen herritar orori zabalik daude entseguak. Hilabete honetako Tolosa Kantari kantu jira hilaren 30ean izango da.

### Harizperen saskia lortzeko azken eguna hilaren 18a

**TOLOSA** • Harizpe jubilatuen eta pentsiodunen elkarteak adierazi duenez, oraindik ez da azaldu Gabonetako bigarren saskiaren irabazlea suertatu den zenbakidun bazkidea. Harizpe elkarteak urtero egiten du Gabonetan saskien zozketa, eta azaldu duenaren arabera, irabazle suertatu direnek euren zenbakia aurkeztu beharko dute ahalik eta azkarren, hilaren 18a delarik azken eguna.

## T Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leizta.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutzte Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosaldeko bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leizta):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaizta:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi goitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

## Tolosako Udala

### IRAGARKIA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2009eko abenduaren 14an egindako bileran, hurrengo proiektua hasiera batez onestea erabaki zuen:

Tolosako Arau Subsidiarioetako R.48 "Tolosana" eremuko borondatezko birpartzelazio proiektua Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 43.2. artikuluan vedatutakoaren arabera, espedientea hogei eguez HOCÉ EGIUNEz jendaurrean jarrita egingo da.

Espedientea jendaurrean jartzeko arrazoiak hau da: nahi duenak dokumentua aztertu eta alegazioak egiteko aukera ematea.

Irargari hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Diario Vascon, Tolosaldeko Hitza eta Berriari argitaratuko da. Aurrean aipatu den epea argitalpen horietako azken iragarpena kaleratu eta biharamunetik hasiko da kontatzen.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espedientea Tolosako Udaletxeko Hirigintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean. Alegazio edo erreklamazioak eraikin horretan bertan dagoen Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira alkatere-lehendakariari zuzenduta.

Tolosan, 2009eko abenduaren 30ean.

ALKATEA.

# Hondakinen bilketan aldaketak

### ERREDAKZIOA

Olio bilketaren sistema aldatu dutela jakinarazi dute Tolosaldeko Mankomunitatetik. Hala, sukaldako olioaren bilketa egiteko zerbitzu iraunkorra izango da ezarri berri diren edukiontzien bidez. Bestalde, hondakin arrisksutsuak leku eta ordutegi hauetan jaso ahaliko dira: Tolosan (Trianguloa), bigarren eta azken larunbatetan goizetan, eta Villabonan, (Errebotte plaza) azken asteartean goizetan. Tolosako San Blas Garbigunean ere jasotzen dituzte astelehenean ostiralera goizez eta arratsaldean eta larunbat goizetan.



Sukaldako olioak uzteko edukiontzia jarri berri dituzte Tolosan. A. IMAZ



Itxura ezberdina du atzotik Euskal Herria plazak, bertako zoladurakonpontzen hasi ziren langileak. E. EZEIZA

## Hasi dituzte Euskal Herria plaza birgaitzeko lanak

**Azpiegiturak** » Hirigune historikoko eremua oinezkoentzat berreskuratzea da aldaketen helburu nagusia.

### ERREDAKZIOA

Atzo hasi zituzten Euskal Herria plazako zoladura birgaitzeko lanak. Plaza errekuiperatzeko hainbat aldaketa egin behar dituzte. Alde batetik, argitasun baldintzak hobetu dituzte, bestetik, zoladura konponduko dute eta hiri altzari

berriak jarriko dituzte. Lan hauen helburu nagusia da oinezkoentzat berreskuratzea Tolosako hirigune historikoko espazio ezagun eta ospetsu hau.

Topic-ek abiatu zuen bidea jarraituz, aldaketa gehiago emango dira datozen hilabeteetan Euskal Herria plazan. Udalak erabilpen ezberdin bat eman nahi dio Plaza Berriaren ereduari jarraiki, ostalaritza eta negozioak sustatuz. Argiztapena hobetzeko aldaketak duela hilabete gutxi gauzatu zituzten, Topic eraikitzen zuten bitartean. Orain zorua hobetzeari ekin

diote eta hiri altzari berriak jarriko dituzte. Lan hauek amaitu ostean, oinezkoentzat jartzen hasiko dira.

Birgaitze lan hauek Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailak sustatutako *Merkagune-Hiri merkataritza* planaren bitartez finantzatu dira. Hala, 148.000 euro jaso ditu Udalak ekimen hau laguntzeko, eta beste horrenbeste, plazaren inguruan, albo batera utzita dauden lokalak erosteko. Ondoren, hauek eman nahi ditu, ostalaritzako eta merkataritzako negozioetarako.



Aukeran dantza taldeak bere azken lana aurkeztuko du martxoan. HITZA

## Berrogei euroren truke, lau emanaldi

**Kultura** » Ostirala bitartean salgai daude, datozen hilabeteetan izango diren kultur ekitaldietarako bonu bereziak, eta «merkeak».

### ERREDAKZIOA

Negua goxatzeko kultur ekitaldi ugari izango dira datozen asteetan, eta dirua arazo izan ez dadin hauek joateko, bonu bereziak atera ditu Udalak. Hala, lau ikuskizunetara joanez gero, %20ko deskontua egingo zaio ikusleari, emanaldi bakoitzean. Honenbeste, 40 euroren truke lau saio ikusi ahal izango dira. Dena den, eskaintza hau

ostiralera arte bakarrik egongo da jarrita. Sarrerak Kutxako salmenta sarearen bitartez edo Leidorreko leihatilan eskuratu ahal izango dira.

*Tolosan zer?* 2010 Negua egitas-moko hurrengo ekitaldia ostiral honetan izango da. Vaiven ekoiztetxearen *El club de las mujeres invisibles* antzezlan ikusteko aukera izango da. Otsailaren 5ean berri, Gorringo taldekoek *Xabinaitor* aurkeztuko dute. Martxoaren 12an, Gabino Diego aktore ezaguna Tolosan izango da bere azken lana taularatzeko. Hil horretan bertan, Aukeran dantza taldeak *Gernika, mihi se gáineko dantza* lana eskainiko dute.

## Inauterietako karroza eta konpartsen inguruko bilera, gaur

**Aisia** » Gai hau hizpide izango da 19:00etatik aurrera, Kultur Etxean; zabalik dago jada lehiaketarako izen-ematea.

### ERREDAKZIOA

Hilabete bat besterik ez da falta inauterietako hasteko, honenbeste, tolosar gehienek hasiko zuten atzerakako kontaketa. Udalak ere gauza gehienak prest ditu jada, hiri kolorez eta festa giroaz bete dadin.

Azken ukituak emateko, gaur, inauterietako karroza eta konpartsen inguruko bilera izango da. 19:00etan izango da bilkura Kultur Etxeko areto nagusian. Gai monografikoa duen bilkura honetan lehiaketaren nondik norakoen berri emango dute, hala nola gaiarekin zerikusia duten hainbat kontuz hitz egingo dute. Deialdia irekia da alegia, gaiarekin interesa duen edonor joan daiteke.

Bestalde, hilaren 14an, hau da



Joan den urteko lehiaketako irabazleak, sari banaketa ekitaldian. I. TERRADILLOS

etzi, jai batzordearen bilera izango da. 19:00etan elkartuko dira Kultur Etxeko bigarren pisuko gelan. Inauterietako izango dira hizpide. Honetan ere edonork hartu dezake parte.

### Karroza eta konpartsek eman dezakete izena

Zabalik dago ere Udalak antolatzen duen Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketan parte hartu nahi dutenentzako izena emateko epea. Hau bi modutan

egin daiteke, Kultur Etxean eskuratu daitekeen izen-emate orria beteta edo Udalaren webgunean, [www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net)-en.

Izena emandakoan, zerbaki bat egokituko zaio talde bakoitzari. Hala, karroza edo konpartsan jarri beharreko karteltxoa (zenbakiduna) ikusi eta inprimatu ahal izango da. Kartel hori uanean bertan inprimatzerik ez badute eskaera egin dutenek, aurrerago ere inprimatuzak berriro Udalaren webgunera sartuta.

## Egiptoko arkeologiari buruzko ikastaroa abian

**Kultura** » Ojasso museoak eta Aulas Kutxak antolatuta, otsailetik aurrera gai honen inguruko hainbat saio izango dira.

### ERREDAKZIOA

Ojasso Museo Erromatarrak Aulas Kutxaren laguntzarekin arkeologia eta artearen historiari buruzko zerbait ikastaro antolatuta ditu, eta horietako bat Tolosan izango da, Egiptoko arkeologia izeneko, hain zuzen ere.

**@ Irudietan.** Urtea zuriz jantzita hasi dute eskualdeko herri gehienek. Elurak paisaia zoragarriak utzi ditu 2010eko lehen-dabiziko egun hauetan. Bidali [tolosaldeko hitza.info](mailto:tolosaldeko hitza.info) helbidera egun hauetan, eskualdeko txoko ezberdinetan zuzen aterako argazkiak. Hauekin ondoren, bilduma bat osatuko da eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren webgunean ikusgai egongo da.

[www.tolosaldeko hitza.info](http://www.tolosaldeko hitza.info)

Otsailaren 25ean hasiko dira Egiptoko arkeologiaren inguruko jardunaldiak eta maiatzaren 20an bukatu. Ostegunetan izango dira saioak 18:00etatik 19:00etara bitartean.

Ikastaroan dagoeneko eman daiteke izena. Hau internet bidez egin daiteke, [www.kutxasocial.net](http://www.kutxasocial.net) webgunean eta telefonoz, 902 54 00 40 telefono zenbakira deituta (asteleheneetik ostiralera, 08:00etatik 14:30era). Urrezko txartela edo Gazteak dutenei %20ko deskontua egingo diete matrikula egiteko garaian.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Jangelako arduraduna.** Ikaztegi-etako Herri Eskolako jangelan begiraleen ordezkapenak egiteko pertsonak behar dira. Epea: 2010eko urtarrilaren 25 arte izen-ematea eta baldintzak ikastetxean: 943 65 21 71.

# Hamar urte beteko dituen Txolarre Irratiak Bertso Jaialdia antolatu du

**Anoeta** » Hamar urte betetzen dituela eta, urtean zehar ekitaldiak egingo dituzte; lehena hilaren 23ko bertso saioa izango da.

## ENERITZ MAIZ

Txolarre Irratiak 2000ko abenduaren 26an eskaini zuen bere lehen emisioa eta aurten 10 urte beteko ditu. Hori dela eta urtean zehar ekitaldi ezberdinak egingo dituzte eta lehena Tolosako Leidorantzokian egingo duten Bertso Jaialdia izango da.

Punta puntako bertsolariak elkartuko dira hilaren 23an 18:00etan izango den saioan. Andoni Egaña, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Beñat Gaztelumendi eta Jexux Mari Irazu izango dira oholtza gainera igoko diren sei bertsolariak. Gaia jartzaila, Amaia Agirre izango da.

Dagoeneko sarrerak salgai daude eskualdeko herri ezberdinetan. Tolosan Denak, Raku, Orbela eta Kantabriko tabernetan eta Leidorantzokiko leihatilan eskuratu ahal dira. Berastegin, berriz, Urepelel-kartean eta Ibarra, Zubiaurre taberman. Alegian, bere aldetik, Jubilatuen biltokian erosi ahal dira eta Villabonako Amasa Kafetegian. Bukatzeko, Zizurkilan Atxulondo eta Iriarte jatetxeetan daude eskuragai. Sarrerak sei eurotan eskuratu ahal izango dira aipatutako puntu horietan hilaren 21a bitarte. Saioaren egunean, Leidorreko leihatilan ere eskuragai izango dira.

## 2000. urtetik Tolosaldeko berriak euskaraz zabaltzen

Txolarre irratia 2000. urte amaieran sortu bazen ere, irratia sortu nahian euskalgintzako hainbat lagun «bi edo hiru urte lehenagotik hasi ziren lanean», azaldu du Jon Miranda Txolarre irratiko esatariak. «Garai hartan eskualdean ez zegoen euskarazko irratirik, behar hori sumatzen zen eta hutsune hori bete nahian sortu zen. Batik bat, herritarrei hemengo kontuak euskaraz huts ez eskainiko zizkien irratia bat sortu nahi zen eta helbu-



Txolarre irratia, musutruk lan egiten duen jende askoren laguntza jasotzen du. HITZA

## » TXOLARRE IRRATIA

### Bertso Jaialdia

■ **Urtarrilak 23.** Andoni Egaña, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Beñat Gaztelumendi eta Jexux Mari Irazu. Gai Jartzaila, Amaia Agirre.

■ **Non.** 18:00etan, Leidorren.

■ **Sarrerak 6 eurotan.** Tolosako Raku, Orbela, Denak eta Kantabriko tabernetan eta Leidorreko leihatilan; Berastegiko Urepelel-

ru horiekin jarri zen martxan» gaineratu du Mirandak.

Ibilbide guzti honetan Txolarre Irratiak zailtasun asko izan ditu. «Nolabait zailtasunek 10 urtetan iraun dute. Alde horretatik ez da aldaketa handirik sumatzen» azpimarratu du. Azken batean euskararen normalizazioan sortzen den proiektu bat izatea eta Kultur Elkarte batek eta herritarrek soilik kudeatzea ez da erraza.

Hainbat lekutan entzuten den krisiak ez du eraginik izan Txolarre irratian «Txolarre beti merkaturtik kanpo egon izan dela esan

kartean; Ibarako Zubiaurre taberman; Alegiako Jubilatuen biltokian; Villabonako Amasa kafetegian eta Zizurkilgo Atxulondo eta Iriarte jatetxeetan.

### Abenduan 10 urte

■ **FM bidez.** 107,5 edo 101,2 frekuentzietan.

■ **Internet bidez.** [www.txolarre.org](http://www.txolarre.org) helbidean.

izan dugu. Irratiaren sostengua ez da oinarritu publizitatean. Diru laguntzetatik eta gure ekimenen propioetatik aterata izan dugu aurrera; txosnak jarritz, materiala salduz edota ekitaldiak antolatuz. Zailtasunak lehen bezala ditugu orain eta ez dugu aldaketarik nabari», azpimarratu du.

Txolarre irratia aurrera aterata ahal izateko 10 laguneko taldea elkartzen dagutxi gorabehera. «Taldea horri, talde eragilea deitzen dioguk eta horietako batzuk hasiera-hasieran irratia martxan jarri zuten herritarrek dira. Taldea hamabost egunean behin elkartzen da eta irratia kudeaketa eramanen du. Talde hori beti irekia egon da herritar guztientzako eta jende asko pasa da hortik», azaldu du Mirandak. Bestalde, urte guzti hauetan laguntzaile mordo bat egon da «txosnetan txanda bat egiten, web orria diseinatzen, laguntza teknikoak ematen, fonoteka osatzen, diskoak emanez, ekimenak antolatzen... Eguneroko martxan, hala ere, ni bakarrik egoten naiz irratian, nolabait esateko liberatu bakarra dago» dio Mirandak.

Bere arduren artean, irratia programazioa eramatearena



Jaialdia iragartzeko kartela. HITZA

dago. Eguneroko programazioa antolatu behar izaten du, hau da, goizeko saioa eta arratsaldean egoten direnak koordinatzea bere esku dago. Bestela, kolaboratzaile bezala jende asko ibiltzen da baina hauek musu-truk egiten dute. Esaterako, astean behin herri kirolez hitz egitera Joxe Angel Sarasola jotzen da eta iluntzetan entzun daitezkeen saioak ere herritarrek egindakoak izan ohi dira; horietako bat da asteazken gauero Koldo Otamendik egiten duen *Bide Okerretik* saioa.

### Larunbatetik aurrera lelo eta irudi berria izango ditu

Txolarre irratia, larunbat eguerdian egingo duen aurkezpenean, irratia lelo eta irudi berria erakutsiko ditu. Txolarre entzuten duenak euskaraz hutsean eskualdeko albiste berri izango du.

Lehen ekitaldia abian da, baina 10 urteak ongi eta behar bezala ospatzeko urtean zehar ere izango dira hiru hitzordu gehiago. «Bi hilabetez behin egiten saiatuko gara eta abenduan ospakizun moduko bat egingo da», adierazi du Jon Mirandak, oraindik ezer zehaztu ezin duen arren.

## Sagain mendi taldeko lehen mendi irteera Murumendira izango da

**Asteasu** » Irteera igandean izango da eta izena kiroldegian eman beharko da; azken eguna hilak 14a da.

## E. MAIZ

Urte berriarekin batera mendizaleek botak eta makilak hartu eta mendirako bidea hartuko dute. Asteasuko Sagain Mendi Taldeak prest du urteko lehen irteera eta igandean, hilak 17, Murumendira joango dira.

Egun erdiko iraupena izango du Ordizia, Murumendi eta Santa Maria gurutzatuko duen ibilbidea. Zailtasunari dagokionean erraza izango da eta hiru ordu eta erdian bukatuko litzateke. Autobusa 08:00etan Udaletxe aurrean hartu beharko da eta buelta berriz 14:30ak aldera izango litzateke.

12 urtetik beherakoek 5 euro ordaindu beharko dute eta 12 urtetik gorakoek, 10 euro. Izena kiroldegian eman beharko da eta horretarako azken eguna hilak 14, osteguna, izango da. Herritar guztiak gonbidatuta daude irteera honetara.

## Otsailaren 6ko Dantza-soka eguneko entseguak hasi dira kiroldegian

**Anoeta** » Dantza-Soka eguneko entseguak astelehenera, 19:30ean, eta ostiralean, 18:00etan, dira.

## E. MAIZ

Urtero bezala, aurten ere Dantza-Soka eguna ospatuko dute Anoetan. Oraingoan otsailaren 6an, kalderero egunarekin batera izango da.

Dagoeneko izena emateko zerrrenda Itzuli taberman jarria dute eta lehen entseguak eginak dituzte. Aurten entseguak bereizita egingo dituzte eta hona hemen, egun bakoitzean erakutsiko duten astelehenera 19:30ean elkartuko dira eta fandangoa eta arin-arina ikasteko aukera izango da, hau da, hilaren 18 eta 25ean. Ostiralean berriz, 18:00etan hasiko lirateke eta axeri-dantza erakutsiko dute, hau da, hilaren 15, 22 eta 29an izango lirateke entseguak.

Horien ondotik, entsegu orokorrak egingo dira eta lehenengo otsailaren 1ean, 19:30ean izango da. Aurten, lehen aldiz, entsegu guztiak kiroldegian egingo dira.



**EUSKAL JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Sendabelar, aromaterapia eta elikagaien terapiari buruz ikastaroa

**Villabona** » Otsailaren 3, 10, 17 eta 24ean izango dira saioak; aurretik hitzaldia emango du Itziar Salegi naturopatak.

### ERREDAKZIOA

Sendabelar, aromaterapia eta elikagaien terapia ikastaroa antolatuta dute Ikastn zerbitzuak eta Hutsunea Betez elkarteak Villabonan. Gurea aretoan emango da ikastaroa otsailaren 3, 10, 17 eta 24ean. Itziar Salegi naturopatak emango du ikastaroa.

Horren aurretik, Salegik hitzaldia emango du, bihar, 17:30ean. Otsaileko ikastaroko edukia azalduko du bertan naturopatak. Hitzaldira joateko ez dago izena eman beharrik. Ikastaroan parte hartzeko izena eman beharra dago eta 50 euroko kuota ordaindu. Horretarako hainbat aukera dituzte interesatuek: [www.ikastn.com](http://www.ikastn.com) webgunean, [info@ikastn.com](mailto:info@ikastn.com) helbidean edo 943 65 11 47, 615 77 56 78 eta 943 96 42 97 telefono zenbakietan.

Ikastaroan lau gai nagusi jorratuko dira: sendabelarrak, aromaterapia (sendabelar aromatikokoak), sendabelarrak eta aromaterapia, eta sendatzen duten elikagaiak. Tintura alkoholikoa, oliotan beratzea, infusioa, xarabe espektoran-tea eta ukendu muskularra bezalako gaiak landuko dira ikastaro horretan.

## 'Alkoholak sortzen dituen gaixotasunak' hitzaldia, etzi Kultur Etxean

**Alegia** » 19:00etan hasiko da eta besteak beste, Alkoholiko Anonimoak elkarteko kide batek parte hartuko du.

### ERREDAKZIOA

Alegiako Udalak antolatuta, etzi hitzaldia izango da, *Alkoholak sortzen dituen gaixotasunak* izenburupean. Solasaldia 19:00etan hasiko da eta Kultur Etxean izango da.

Hitzaldian alkoholak eragiten dituen arazoan aurpegi ezberdinak jorratuko dituzte. Bertan izango dira hitz egiten Alvaro Iruin, Psikiatria Ospitaleko mediku-burua; alkoholikoen familiarrek osatzen duten Al-Anon elkarteko kide bat; Alkoholiko Anonimoak elkarteko ordezkarri bat eta Udaleko Gizarte Zerbitzueta teknika.



Plantxenetik Medikuei etxeraino bitarteko oinarrizko sareak eta lurzorua berri nahi ditu Udalak. A. IMAZ

# Udalak oinarrizko sareak eta lurzorua berritzen jarraitu nahi du E-Planarekin

**Amezketak** » Proiektuak 106.000 euroko kostua du eta Plantxenetik Medikuei etxerainoko zatia hartzen du.

### IMANOL GARCIA

Amezketako Udaltzatzaile hainbat erabaki hartu ditu azken bi osoko bilkuretan. Horien artean nabarmenezkoa da aurtengo E-Planerako diru laguntza eskaria iazkoaren jarraipena izango dela, hau da, oinarrizko sareak eta lurzorua berri-tzea.

Iazkoan Zapatero Plana bezala ezagutu ziren diru laguntzak, hau da, azpiegitura lanak gauzatzeko Madriletik udalei emandakoak, aurtengoan ere emango dira. Amezketako Udalak aurtengorako onartutako proiektua 106.268 eurokoa da. Lan horiekin Plantxenetik Medikuei etxera bitarteko uren sarea berri, ur zikinak eta garbiak sailkatu, telefonoaren kableak lur azpitik pasa eta lurzoruari Aierbene etxearen aurreko kale zatiaren bukaera berdina eman nahi da. Modu horretara, lanek herriko dendak, osasun zentroa eta haurtzaindegia hartzen dituzte.

Diru laguntza eskaria eginda, orain Madriletik onartu behar dute proiektu hori. Obrak aurten amaitu beharko direla aurreratu Jesus Iñurruta alkateak, baina lan horri ekin aurretik Aierbenea Kultur Etxe bihurtzearen obra amaitu nahi dute.

### Euskararen barne erabilera plana onartuta

Beste erabaki garrantzitsua Udalarren euskararen barne erabilera plana onartzea izan da, IV. Plan-gintzaldirako neurriekin. Plana-



Ola auzoan aurreikusita dauden pabilioi berriak errekararen atzean egiteko aukera erabaki du Udalak. A. IMAZ

ren bitartez, eta UEMAren laguntzarekin, Udalean dauden dokumentuen euskaratzea gauzatu nahi da. Plana onartzean kontuan izan da Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako sailburuordearen aldeko txostena.

Zumadi eskolari dagokionez, segurtasun gabeziak gainditzeko proiektua eta aurrekontua onartu ditu Udaltzatzaile. Proiektua egite-arako eskolan dituzten beharrik larrienak zuzendaritzarekin aztertutuzte eta Eusko Jaurlaritzako ikuskatze teknikoak eginiko txostenean zehaztutako gabeziak kontuan hartu dira.

Horrela, hainbat aldaketa aurreikusten dira proiektu horretan: segurtasun-larrialdiko atea legediak dioen bezala ireki behar dela, alarmak, izuaren aurkako neu-riak, larrialdiko argiak, frontoiko argiak, energia aurrezte eta haur txikiaren aterpea egokitzea.

Proiektuak 22.284 euroko kostua izango du eta Udalak diru laguntza eskatuko dio Eusko Jaurlaritzari obra egiteko.

### Ola auzoko pabilioi berriak

Eztabaida sortu duen gai bat Ola auzoko pabilioi berrien eraikuntza izan da. Aurreko arau subsidiarioetan aurreikusita zegoen errepidearen ondoan egitea pabilioiak. Alkateak azaldu duenez, «Udalan sartzean ez genuen kokapen hori egoki ikusten eta errepidearen ondoan izan beharrean, errekararen atzean eraikitzea hobesten genuen».

Lurjabearekin negoziatzen aritu zirela dio alkateak, baina akordioak ez zutelortu azaldu du. Horren aurrean eremu horretako arau subsidiarioak aldatzea erabaki zuten eta azaroan egindako osoko bilkuran hasierako onarpenera eman zitzaion.

Arau subsidiarioen inguruan,

azken osoko bilkuran, abendukoan, behin behineko onarpenera eman zitzaion hiri antolamendua- ren plan berriari. Beraz, udal mailan prozesu guztiak bete ondoren, orain Foru Aldundira bidali behar da dokumentua eta erakunde horrek eman beharko dio azken onespenera.

### Mozioak

Azken bi osoko bilkuretan ere hainbat mozio eztabaidatu dira. Bildutako denek onartutako mozioak ondokoak izan dira: Egun-kariaren aldeko mozioa, Aramaio-ko alkatearen babes mozioa, Espainiako Polizia Nazionalak eta Guardia Zibilak egindako 34 atxiloteta eta ehunka miaketan gaitzespen mozioa eta EHNERen mozioa. Bestalde, EHGAM-en mozioa onartu zen aldeko bi boto eta hiru abstentzioekin. Azkenik, udalerrian sortutako hondakinak ez erretzeko eskaria ez zen onartu.



# «Pozik egoteko moduko» garaipena lortu du Fernandezek Mundukoan

**Ibarra** » Belako 49er mailako Munduko Txapelketan lehen postuan sailkatu ziren ibartarra eta Iker Martinez.



Donostiarrek eta ibartarrak hamabi urte daramatzate elkarrekin. HITZA

## ERREDAKZIOA

«Garaipen borobila izan da», adierazi zuen, pozik, Xabi Fernandezek, belako 49er mailako Munduko Txapelketa irabazi ondoren. Iker Martinezekin batera, Ibarra-koak berriro lortu du munduko txapeldun izatea, oraingo honetan Bahametako uretan. Hain zuzen, txapelketa hau irabaztea lortzen duten hirugarren aldia da hau. Beste biak, Hawain eta Atenasen lortu zituzten 2002an eta 2004an, hurrenez hurren.

Azken jardunaldia, herenegun-goa, erraza izan zen euskaldunen-tzat, aurretik ere abantaila dezente zutelako bigarren sailkatuekiko. «Ondo nabigatzen saiatu gara eta lortu dugula uste dut; hori bai, ez da batera erraza izan», esan zuen Iker Martinezek.

Xabier Fernandezek «garaipen handia» izan dela aipatu zuen domina eskuetan zuela. «Asko esan nahi du guretzat; hamabi urte daramatzagu batera lanean eta 2002ko eta 2004ko garaipenen ostean 2010era arte itxaron behar izan dugu txapeldun izateko». Txapel hau pasa den urriaren 2an istripuz hil zen euren entrenatzaile eta laguna izan zen Kym Lyhtgoe-ri eskaini nahi izan zioten.

## » SAILKAPENA

1. Xabi Fernandez / Iker Martinez: 57 puntu
2. Nathan Outteridge / Iain Jensen: 84 puntu.
3. Pietro Sibello / Gianfranco Sibello: 96 puntu
4. Dyen Emmanuel / Stephane Christidis: 102 puntu.
5. Dylan Fletcher / Alain Sign: 106 puntu.

## Atsedenerako tartetik gabe

Garaipena ospatzeko tarte handirik ez izango Fernandezek eta Martinezek, Bartzelonan jokatu den World Race delakoan hartuko baitute parte egun gutxi barru. Fernandezek berak aitortu duenez, «oraindik asko dugu ikasteko». Bartzelonako lehiaketa honen inguruan «guztia bi pertsonen artean egin beharra dago, bestee-tan ez bezala». Itsasaldiak egitea ere aurreikusitako dute.

## Zer da 49er mailako Munduko Txapelketa?

Kirol gogorra da bela eta askorentzat baita ezezaguna ere. 49er nazioarteko itsasontzi mota bat da, Julian Bethwaite australiarrek diseinatu zuena. Baina 2000. urteko Olinpiar Jokoetatik hona lehiaketa mota bat ere bada. Bere ezaugarriak nahiko berriak dira bela munduan. Esaterako, itsasontziko bi tripulatuak trapeziotik gidatzen dute itsasontzia, txanberga atzeragarria da eta bela handiko spinnaker asimetrikoak erabiltzen dira.

## » XABI FERNANDEZEN ETA IKER MARTINEZEN GARAIPENAK

### 2000

■ Europakoan, brontzea.

### 2001

■ Munduko txapeldunordeak.  
■ Europako txapeldunordeak.

### 2002

■ Munduko txapeldunak.  
■ Europako txapeldunak.

### 2003

■ Europakoan, brontzea.

### 2004

■ Munduko txapeldunak.  
■ Urrea, Atenasko Olinpiar Jokoe-tan.

### 2005

■ Munduko Txapelketan, bosgarren.

■ Europakoan, laugarren

postua.

### 2006

■ Brontzea, Europakoan.  
■ Munduko Jokoe-tan (ISAF) txapeldunak.

### 2007

■ Europako txapeldunak.  
■ Qingdao Olinpiar Jokoen aurre-kioan, zilarra.

### 2007

■ Europako txapeldunak.  
■ Pekingo Olinpiar Jokoe-tan, zilarra.

### 2010

■ Munduko txapeldunak.

## Udalak Sahararen aldeko janari bilketa jarri du martxan

**Elduain** » Udaletxera bertara eraman daiteke janaria; horrez ere lagundu daiteke horretarako ireki duten kontu korrontean.

## ERREDAKZIOA

Urtero bezala, aurten ere Sahararen aldeko janari karabana egingo dute Elduainen. Hain zuzen, datorren hilean, otsailean, irtengo da Euskal Herriatik. Helburu argia du ekimenak, Saharako herriari ahalik eta elikagai gehien eramatea, alegia, Tindoufeko errefuxiatuen

kanpamenduetan pairatzen duten elikagai falta asetzeko asmoz.

## Arroza, lekak, pasta,...

Elduainen ere ekimenarekin bat egin dute eta udaletxean bertan egiten ari dira janari bilketa: Udaletik jakinarazi dutenez, lagundu nahi dutenek bertara eraman ditzake honako jakia: arroza, lekak, pasta, atuna oliotan, sardinak oliotan, azukrea edota konpresak.

Janariak aparte norbaitek laguntza ekonomikoa eman nahiko bala, hona hemen kontuaren zenbakia: 3035 0080 94 0800054177 (Euskadiko Kutxa).

## Finala Urriza eta Lizasoren aurka jokatu dute Zeberio II.ak eta Badiolak

## ERREDAKZIOA

Pasa den larunbatean finalerdietako hirugarren partida irabazita igaro ziren finalera Zeberio II.a eta Badiola erremontistak. Eta herenegun finaleko bigarren bikotea erabaki zen Juaristi-Urrutiaren eta Urriza-Lizasoren arteko partidari. Azken hauek irabazi zuten, hain zuzen.

Zeberio II.-Badiola eta Urriza-Lizaso bikoteek jokatu dute finala honenbestez, datorren larunbatean, Hernaniko Galarreta pilotalekuan, 16:00etan hasiko den jaialdian.

## Euskalduna jauregian ariko da bihar Alurr, Ketan taldearekin batera

**Ibarra** » Aiert Beobideren zuzendaritzapean, musika taldeari dantzaz lagunduko dio Ibarra taldeak, 20:00etatik aurrera.

## ERREDAKZIOA

Alurr dantza taldea bihar Bilboko Euskalduna jauregian ariko da, Ketan musika taldearekin batera. Emanaldia 20:00etatik aurrera izango da eta sarrera doakoa da.

Emanaldi honetan Ketanek sei abesti aurkeztuko ditu eta Alurrek dantzarekin lagunduko du ikuski-

zuna, Aiert Beobideren zuzendaritzapean. Urteko lehen emanaldia izango da ibartarrentzat.

Ketan taldea osatzen duten Leire Telletxea (Bera, 1986) eta Jagoba Astiazaran (Zestoa, 1986) musikagileek musika tradizionala berri-zeko ahaleginean dihardute *Izanaz garena* izeneko proiektuan. Lehenengoak akordeoia jotzen du eta bigarrenekoak txistua. Euskaldunako aurkezpen kontzertuan egungo eta betiko doinuak tartekatuko dituzte, Erkoreka, Zalba, Astiazaran, Gorosarri, Andoain eta Bastidaren lanaz uztartuz.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

## Kirol emaitzak

### PILOTA

Lau t'erdiko Euskal Herrikoa

ELITE MAILA, FINALA

Jon Jaunarena- Mendizabal 22-18

### I. Pebet Memoriala, finalak

KADETEAK

Olano-Tolosa 22

Nazabal-Artola 18

JUBENILAK

Urretabizkaia- Bereziartua 22

Loidi-Zinkunegi 4

NAGUSIAK

Narbarte-Telletxea 18

Muguruza-Aldape 22

### Binakako Txapelketa Nagusia

TOLOSAKO BEOTIBAR PILOTALEKUA

Oinatz Bengoetxea-Beloki 22

Xala-Zubieta 18

### ERREMONTEA

Binakako Txapelketa

FINALERDIAK (KITARAKOAK)

Zeberio II.a- Badiola 40

Ezkurra-Ion 38

Urriza-Lizaso 40

Juaristi-Urrutia 25

FINALA, HILAK 16

Zeberio II.a- Badiola -

Urriza-Lizaso -

### FUTBOLA

Nafarroako Erregional Maila

Aurrera Leitza 0

C.F. San Jorge 0

SAILKAPENA

1. Lagun artea (33p.); 2. Ardoi (30p.); 3. Burladas (30p.); 14. Aurrera Leitza (18p.)

### ARETO FUTBOLA

Nazional A Maila

C.D. Burlada- Lauburu KE 3-4

SAILKAPENA

1. Zierbana (35p.); 2. Lauburu KE (32p.); 3. Zalatambor Area 99 (31p.)

### Nazional B Maila

Trsp. Lakunza- A. Algeposaso 3-5

Laskorain Ikastola-Elorrio 9-5

SAILKAPENA

1. Laskorain Ikastola (32p.); 2. Concepto-Creatch (30p.); 3. Alerri Algeposaso (29p.); 11. Transportes Lakunza (15p.)

### SOKATIRA

Euskal Herriko Txapelketa

GOMA GAINEAN, 680 KILO

1- Abadiño (2 puntu); 2. Amair (puntu bat) eta 3. Auzolan (0 puntu)

### SASKIBALOA

Lehen Maila

Take Bidebide Ibizia 87

TAV Fund. Baskonia 81

SAILKAPENA

1. Bidegintza Cespa (9-3); 2. Seky.es (7-5); 3. Padura (7-5); Take Bidebide Ibizia (3-9)

### XAKEA

Gipuzkoako Taldekako Liga

3. MAILA

Tolosa-Ibarra A 4

Tolosa-Ibarra B 0



Jende ugari elkartu zen atzo Tolosako Beotibar pilotalekuan. Urdinak, Bengoetxea VI.a-Beloki, nagusitu ziren. ASIER IMAZ

# Ruben Belokik eutsi eta Oinatz Bengoetxeak bukatu

**Leitza** » Binakako Pilota Txapelketaren lehen partida 22-15 irabazi zuten Bengoetxea VI.a-Belokik, Xala-Zubietaren aurka.

#### ERREDAKZIOA

Tolosako Beotibarren pilotazale ugari elkartu ziren atzo. Bertan, Binakako Txapelketaren partida jokatzeko zen. Urdinez, dirua eta

Bengoetxea VI.a-Beloki irten ziren. Gorriz, Xala eta Zubieta.

#### Bengoetxea VI.a «onena»

Leitzarra eta burlatarra «erraz» hasi ziren irabazten. Hala eta guztiz ere, gorriek 13-15 jartzeko adorea eduki zuten, baina alferrik izan zen. Partida osoan «dirua doblean» ibili baldin bazen urdinen alde, jokoak horrela erakusten zuelako izan zen. Pilotazaleen esanetan gauzak argi zeuden: «Zubietak

tantoa menperatu du baina Belokik bikain eutsi dio. Oinatz berriz partidako onena izan da eta bukatzen ondo asmatu du. Xala berriz beti bezala, odolgabe».

Lapurarrak bi edo hiru pilota txapara bota ondoren, Zubietaren nagusitasunak ez zuen islarik eduki markagailuan. Bengoetxea VI.a berriz, Belokiren sendotasuna lagun zuela, «bikain aritu» zen.

Gauzak horrela, Tolosako partida azkar amaitu zen atzokoan.

# Laskorainek bikain hasi du urtea 9-5 Elorrioko garaitu ostean

#### ERREDAKZIOA

Eguberrietako etenaldiaren jan eta edanak ongi digerituta, garaien batekin ekin zion Laskorainek 2010 urte berriari, pasa den larunbatean Usabalen. Ikastolakoek sailkapeneko seigarren postuan kokaturik zetorren Elorrioko talde bikaitarra, 9 eta 5, aise menderatu zuten, eta nola ez, hiru puntu gehiagorekin lider jarraitzen dute beste jardunaldi batez.

Joko maila altuegirik izan ez bazuen ere neurketa ikusgarria suertatu zen, erdipurdiko gidoia duten akziozko filme komertzial eta entretengarri horien modukoa, eta Usabalera bilduriko zalegoak ederki pasa zuten arratsalde *made in Hollywood* bezalasailkala dezakegun partidarekin.

Ikusgarria diogu jokaldi gorabeheratsuak, gol aukerak eta golak zaparradan ez, baina mara-mara erori zirelako berrogei minututan zehar, asteburuko elurrari zegokion bezalaxe behar bada.

Etxekoak erabat nagusitu ziren

lehen zatian adibidez, lau gol erori ziren orduan; Murgiren, Mikel Alonsoren eta birritan Barriolaren eskutik. Atsedendia baina lehentxeago gainera, epaileek atezain bizkaitarra kaleratu zuten, areaz kanpo eskuarekin bosgarrena ekiditeagatik.

Aldageletatik bueltan, beraz, horitxoek bi minutu izan zituzten nagustiasunean bestegol bat egiteko; eta horrelaxe gertatu zen, Barriolak ez baitzuen barkatu bere hirugarrena sareratuz. 5 eta 0 markagailuan, norgehiagokaren gidoiak erabakita zirudien jada, filmaren amaierak ez zuen misteriorik eta gelditzen ziren hogei minutuak espektakuluz betetzea besterik ez zen gelditzen.

Honela, arratsaldeko gol bikainenari, presio irteeretako pizarran prestatuturiko jokaldian, Telleriak sarturiko horitxoaren seigarrenari hain zuzen (6-0), bikaitarren bi golek jarraitu zitoten (6-2). Beranduego, Otxoa *Billy the Kid* pisto-leroko sareratutako zazpigarrena-

ri (7-2), Elorriokoek beste hirurekin erantzun zitoten (7-5), baina Otxoa bera berriro ere golegile izango zen (8-5), *gatilloa* edo kolpekaria kliskatzeko duen abiadura itzelaren beste frog bat eskainiaz. Bederatzigarrena, (9-5) Gil TDI erregaitzaksartuko zuen azkensegundoetan.

Aipatu amaitu aurretik, gure iritzi apalerako, partiduko *sheriffa* Javi eta Imanol prestatzaileak. Barriola kapitain horitxoa izan zela larunbatean. *Hat-tricka* osatzeaz gain, atzealdean aurkariari aurreratuz baloi erabakigarri asko moztu zituen eta taldearen eraso eta kontraerasoa, biak, eduki antolatuta zituen pase zuzen eta zehatzak emanaz. Partida borobila osatu zuen kapitainak.

Liderraren *maillotari* eutsita, pozik joan ziren afaltzera Jorge, Javi eta Imanol prestatzaileak. Baita Endika, Telleria, Barriola, Murgi eta Lander, hasierako botxakoa; Gil, Alonso, Txiki, Otxoa, Elola eta Ezki jokalariek. Baja izan genituen Zabala, Ekhi eta Urko.

# Tolosa-Ibarra A nagusitu zaio B taldeari, Gipuzkoako Taldekakoan

**Xakea** » A taldekoen esperientzia erabakiorra izan zen lehen jardunaldiko norgehiagokan.

#### ERREDAKZIOA

Pasa den larunbatean Gipuzkoako Taldekako Liga hasi zen. Tolosa-Ibarrakoek bi talderekin hartu dute parte, biak 3. mailan eta lehen txandean elkarren aurka jokatu zuten. A taldeak 4-0 irabazi zuen. Migelmari Baroja, Andres Bustamante, Jokin Mendia eta Aimar Intxaurrendok garaipen garbia lortu zuten Danel Intxaurrendok, Mikel Arechaga, Iñigo Puerta eta Javier Herreok osatzen duten B taldearen aurka.

Xakean esperientzia osogarrantzitsua da eta B taldearen lehen urtea dela kontutan hartuta, Akoek abantaila handia zuten. Horren erakusle nagusia Barojak lehen mahaian jokatutako Damaren garbitoa izan zen. Intxaurrendontzat ezezaguna zen irekieroa hau eta dama alde behar bezala garatzerakoan zion egon zuten, eta gero ezin izan zion Barojaren mate erasoari aurre egin.

Beste hiru partidetan ohiko Irekiera italiarra ikusi zen arren, gaztetxoek ez zuten plan egokia aurkitzen asmatu. Horrela, bigarren mahaian Arechagak azkarregi erasotu zion Bustamanteri errege aldean eta honek eraso atzera bota eta bikain irabazi zuen. Puertak askoz hobeto eutsi zion Mendiari hirugarren mahaian, baina pixkanaka-pixkanaka Mendiak partida kontrolpean hartu eta puntua bereganatu zuen.

Azkenik, laugarren mahaian Herreok huts egin zuen ageriko eraso batean, eta pieza bat gutxiagorekin geratu ondoren, Intxaurrendok bere gazteluekin min handia egin zion azken lerroan.

### Villabonan eta Donostian

Datorren astean bi taldeek kanpogan jokatuko dute, lehenak Villabonan eta bigarrenak Donostian.

Hor ikusiko dira hobeto mailaz igo ahal izateko bi taldeek dituzten aukerak.



Xake lehia. ESTI ZEIZA

